

# MAITASUNAREN DURRUNDA

Euskerazko irakasle bi direla medio, idazteari ekin nion. Haiek irakatsi eta sentiarazi zidaten gure hizkuntzarekiko miresmena zein errespetua.

Nire idatzietan sentimenduak eta ideiak argi eta garbi isladatzen saiatzen naiz, grinaz eta gogoz. Maitasuna zein heriotzaz mintza naiteke eta amaierak ustekabez beteak bukatzen dira

Azken istorioa benetan hunkigarria da, bikote baten arteko erakargarritasunari buruzkoa. Familia dute eta hala ere, guztiz maitemindurik daude, izkutuan daramatzate beren sekretua eta elkar ikusten dira haien kabi berezian, biok bat bihurtuz amodioa egin ondoren. Belarrira euskera hutsean marmar egiten diogu: maite zaitut gaur eta beti. Noizago laztana. Orduan, maitasunaren durrunda mundua barrena entzuten da.

## **NESKAREN SENTIMENDUAK**

Zergatik ezagungabe horren begirune zein irriñoak erakartzen naute hainbestean?

Ez dut apenas ezagutzen, ez dut oraindik maite baina jakin badakit egunero begietsi eta laztandu nahi dudala; egun oroz bere hitza behar dudala, bere ahots goxo eta atsegina, bere esku fin eta delikatuekin ni ukitzea desiatuz, pianoa jotzen duen artistaren hatzamar magikoekin...

## MUTILAREN GOGOETAK

Ostera bere, edan bako hordia; ostera bere, ahazturiko kilimak, ezinegona, eta bihozturiko estukura itogarria hau. Zergaitik sentidu arazten nau hain asaldaturik? Ia ez dot ezagutzen, eta, halada bere, berak osoan erakartzen nau.

Gaur, bere, alkarregaz gagoz, eta zure begi ilunakaz neureak beteten dodaz.

Berba egiten deustezu, eta ni, ostera, harago eta barrurago begiratzen zaitut: aurpegi beteko irri osokoa, garbia, bizigurakoa; begietan dizdira, betargia, argitasuna; ezpanetan, indarra, jasa eta nire desioa; eta agerian, ostendu ezinik dozun hau, asmamen bidaietan hegaz egiten dozula, eta bizipenak iraziz, zure barrua erraietaraino busti gura dozula. Honeixekaz danakaz zure eginekoak argitzen dozuz. Zeinen polita zaran!

Sena gogoia baino jakintsuagoa da, eta, jakin badaki nor zaran. Senak badaki irakurten zure keinu guztiak, eta baita denborak eta izanak zure begitartean utzitako aztarrenak eta ñabardurak bere. Berak ez dauka zalantzarik, eta grinaz aldarri egiten deusta: bera da! Senak zure ajea daroa, eta ni laino batean.

Eta orain, barriro oraturik, sakeleko telefonoan begiak josirik, zure zain; baina, batez bere, hitzen preso, eta berbaz berba, oratuagorik. Hitzez, eskutik eroaten nozu zure baitanera, sentimenduen eta itaunen artera, biziro sentitzera.

Eta orain, zer? Nora ete? Eldarnioak, txakur amesak ete? Jakin, hau baino ez dakit: zure ulea nire aurpegian sentidu gura dodala, zure

azalaren berotasuna eta usaina lapurtu gura deusudazala; zeu osoan laztandu, eta zeure ezpanak umeldu behar dodazala...

## **ALKARRENAK**

Bere kotxean sartu bezain pronto, ezpainetan musukatu nuen, urduritasunez baina aldi berean berotasunez. Ordu bat lehenago, garagardo pare bat hartu nituen, hori izango baitzen gaurko aitxakia etxean.

Gaueko 9.30ak dira.

Euria kalean.

Gu, kotxe barruan.

Eta nik bakarrik bere aurpegia ikusten dut, bere aurpegi goxoa, samurra, liluragarria. Bat-batean nire begirada bere ezpainetan jasotzen da, ezpain horietan, ezpain bustiak, umelduak, zoragarriak, bizia duten hoietakoak.

Musua badator, munduko musurik ederrena eta berak badaki nola jolastu mingainarekin, bai badaki; goikaldean gora-behera erritmo bizi batez mugitzen daki eta nirea ere mugiarazten du.

Denbora gelditzen da; gu bakarrik gaude munduan. Musika eta hirurok. Eta musikarekin dantzatzu, mingainarekin olgetan jarraitzen du, nire gorputza arakatzu, belarrietatik hasita samaraino. Bere esku magikoek nire aurpegia behatzen dute, ezpainak behin eta berriro laztanduz, atzamarrak ahoan plazer eta goxotasunez barneratzu.

Nik ekarri duen koadradun alkandoraren botoiak apurka apurka eransten dizkiot, astiro baia etenik gabe. Bularratik beherantza musukatu egiten dut bere azal leuna, astiro baia etenik gabe...zakilaraino aillegatzen naizen arte. Orduan, nire ahoan sartzen dut laztanduz, musukatuz, ferekatuz, astiro eta errespetuz baia etenik gabe. Eta zuk nire izena tsu egiten duzu eta nik gero eta gehiago sentitzen dizut.

Zure txanda dela xuxurlatzen didazu eta ni lotsatuta, izututa, beldurrez... baia bihotzak badaki bai horren zain dagoela.

Mementu hura bizitzaren unerik politena iruditzen zait, nire izterrak, bernak eta hankak ikutzen dituzunean, liluratuta, maiteminduta. Eta berriro zure esku magikoak agertzen dira baia oraingoan nire sekretua aurkitzeko...

....eta zure atzamarrak nire aluaren barnekaldean astiro eta errespetuz barneratzen dituzu, poliki baia etenik gabe. Zure hitzekin egingo duten bidea azaltzen didazu eta ni harrituta, zoratuta, maiteminduta guztiz.

Mirari bat da eta gu bertan gaude, protagonistak gara, betirako.